

LITERATURA. 400.000 obra berri aurkeztuko dira, 6.671 erakusmahaitan, eta 300.000 bisitari inguru espero dira

Literatura mundua Frankfurtera begira jarri da

Orain artean egindako lana «asentatzea» du xede Liburu Azokako euskal ordezkariak

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Gaur zabalduko ditu ateak Frankfurteko Nazioarteko Liburu Azokak, eta, azken urteetan bezala, aurten ere hainbat euskal argitaletxetako eta Euskal Editoreen Elkarteak kideak izango dira han, euskal literatura bultzatzen. Aurten, gainera, Bernardo Atxaga eta Mariasun Landa idazleek irakurraldia egingo dute, bihar eta etzi, Frankfuten, Jabier Muguruza-ren zuzeneko kantu emanaldien laguntzaz, eta euskal literaturak Frankfuten izango dituen ordezkarien artean Miren Azkarate Eusko Jauriaritzako Kultura sailburua izango da.

Argitaletxeei dagokienez, Euskal Editoreen Elkarteak sei argitaletxetako ordezkariak izango dira aurten Frankfurteko Azokan: Alberdania, Aralar, Elkarlanean, Erein, Hiria eta Txalaparta.

«Orain artean egindako lana asentatzea espero dugu, hala alor komertzialean nola kulturean», adierazi zuen, atzo,

Jorge Gimenez Bech Euskal Editoreen Elkarteak lehendakaria. «Argi ikusten dugu kultur promozioaren alorrean sendo eta etengabe lan egitea dagokigula, emaitza komertzialak horrik etorriko direlakoan».

Arlo kulturala baztertuz arlo komertziala gehiegi indartzea ez litzateke bide zuzena, Gimenezen iritziz. Katalanezko literaturaren bultzatzaileek jarraitutako ildoari ez dio, horrenbestez, euskal literaturarentzat onuragarri irizten: «Katalanen eredua eta islandiarrena elkarrekin konparatzen baditugu, guri dagokiguna, ez bakarrik neurritz, baita zentzuz ere, islandiarrena da», dio Gimenezek. «Hau da, muntaiek nolabaiteko hondarra edo arrastoa uzten dutenak izan behar dute», gaineratu du, «ez soilik publizitarioak. Nazioarteko merkatuan sarbiderik lortzekotan, ez dugu lortuko saltzeko daukagun produktua besteena baino hobea delako, zirkuitu kulturaletan nolabaiteko presentzia lortu dugulako baizik».



HERIBERT PROEPPER / EFE

Liburugintzaren munduan Europako topagunerik garrantzitsuenak da Frankfurtekoa.

JORGE GIMENEZ

Editoreen Elkarteak lehendakaria

«Nazioarteko merkatuan sarbiderik lortzekotan, zirkuitu kulturaletan nolabaiteko presentzia lortu dugulako izango da»

Azokaren aurtengo ekitaldian 400.000 obra berri aurkeztuko dira. 300.000 bisitari inguru biltzen dituen azokaren antolaketa aldatu egin dute aurten. Horrela, 105 herrialdeetako 6.671 erakusmahaien arteko

distantzia gutxitu dute eta bisitari batetik bestera ibiltzeko erraztasunak jarri dizkiete.

Grezia, aurtengo herrialde gonbidatua

Grezia da aurtengo herrialde gonbidatua, baina Lorenzo Rudolf azokaren zuzendariak iragarri duenez, gonbidatuko duten azken herrialdeetako izango da: «Horren orde, 2004. urtetik aurrera zientziak, literaturaz nahiz politikaz jarduteko intelektualen batzarrak antolatuko ditugu».

Urtero Alemaniako Liburu saltzaileek ematen duten Bakearen Saria Jürgen Habermas filosofo eta soziologo alemaniarak jasoko du igande honetan.

Aurtengoan segurtasun neurri zorrotzak hartu dituzte nazioarteko egoera korapilatsua dela kausa. Hala, aurreko

aldietan ez bezala, azokara sartzen den oro miatu egingo dute. Halaber, EEBBeko 800 argitaletxetik 30ek ez dute parte hartuko azokan. Hala ere, nabarmengarriena Alemaniako Taschen argitaletxearen ezeztapena izan da. Bere parte hartzea bertan behera uzteko arrazoia, ordea, azokan egoteak sortzen dien gastuen handitasuna izan da.

Bestalde, EEBBek Afganistanen aurka egin dituzten erasoaren aurrean Frankfurten bilduko diren idazle eta argitaletxeen aldetik protesta ekitaldiak egongo direla uste da. Horrela, antolatutako ohi diren jaialdiak gutxitu egingo direla iragarri dute. Lorenzo Rudolfen ustez, lekuz kanpokoa izango litzateke jai giroko azoka antolatzea; «hausnarketarako azoka izango da aurtengoan».

MUSIKA. 'Ten new songs' da diskoaren izenburua

Leonard Cohenek disko berria kaleratu du bederatzi urteren ondoren

Erredakzioa | DONOSTIA

Bederatzi urtez Los Angelesko monasterio zen batean egon ondoren disko berria kaleratu du Leonard Cohen abeslari iparramerikarrak.

Cohenek idatziriko eta konposaturiko hamar poesia berri biltzen dira atzo kaleratu zen diskoan, *Ten new songs* da lan berriaren izenburua; bertan parte hartu du Sharon Robinson abeslari eta konpositoreak ere. Hamar abesti hauetako protagonista, beste behin ere, maita-

sunezko abestiei forma ematen dien Cohenen ahotsa izan da.

Leonard Cohen Montrealean jaio zen 1934an eta hamazazpi urterekin poesia idazteko laukote bat osatu zuen, eta hurrengo bederatzi poesia liburu, bi eleberriz eta hamalau disko kaleratu ditu.

Orain, 66 urterekin, inoiz baino gogotsuago eta indartsuago sentitzen omen da idazteko eta musika konposatzeko. 1993an sartu zen monasterioan, eta bertan Dharma de Jikan (Isila) izena jarri zioten.

azken zenbakia
JAKIN 125

Gai nagusia

Zientzia XXI. mendean

Sinpletasunetik konplexutasunerantz.

PEDRO MIGUEL ETXENIKE / JOSE MARIA PITARKE / FERNANDO PLAZAOLA

Zientziaren kultur erronkak. ANDONI IBARRA

Iritzi bilketa:

- JULIO ABASCAL / KEPA SARASOLA • KEPA ALTONAGA
- F.P. COSSIO / J.M. UGALDE • XABIER EIZAGIRRE
- INAKI IRAZABALBEITIA • JOSE MARIA URKIA

... eta aurtengo kolaboratzaileak

JOSEBA BALERDI • URTZI URRUTIKOETXEA
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

kultura, literatura, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko gertakariak komentatuz

egin zaitez harpidedun

Tolosa hiribidea, 103-1.C - 20018 DONOSTIA - Tel.: 943. 21.80.92 - Faxa: 943. 21.82.07 - jakin@jalgi.com